


Aretxabaleta,  
1993ko martxoak 11

# Aretxagazeta



## Kalean gora kalean behera

• Afizioak: Jose  
Fuensanta Castro

• Pertsonaia:  
Juanjo Perez

• Kirolak:  
Asier Guenetxea





"Atxabaltan atxabaltartasuna beste leku batzuetan baino haundiagoa da"

## Ai, Atxabalta

Zorionak emanez hasi behar. Oraintxe beteten da urtebete orri honetatik bertatik, baina Aretxagazeta berriaren lehen aletik, atxabaltarrei eupada bota niela. 25 joan dira ordutik. Halakoetan "umearen" aita - amei botaten zaizkie loreak, komente. Baina ume hori astea joan eta astea etorri bere txikian hazten ikusten dutenek ere merezi dutela zerbait. Baietzean nago. Eta zuretzat doa, Atxabalta.

Sarritan pentsatu izan dut Atxabalta herri batua dela. Atxabaltan atxabaltartasuna beste leku batzuetan baino haundiagoa dela. Atxabaltak neurri polita duela herri nortasunari eusteko; Atxabaltan entiarritara biltzen den jendetza hunkigarria dela oraindik. Herritik kanpo

nongoa naizen esplikatzeko "Arritxabaleta" edo "Artxabalta" ez, "Atxabalta" dela esplikatu behar izan dudana bider somatu izan dut hori.

Baina neure pentsamendu hutsak ez direla esaten dit 25 Aretxagazeta hauetan ikusi eta irakurri ahal izan dudanak. "Atxabaltartu" ugarik egin digu kuku bentana honetatik, alabantza ederrak bota be bai, ("preguntatu ezker, zer esango juek ba?" esango luke bestea). Neuretzat behintzat sospresa atsegina izan da guzti horiek eta askoz gehiago atxabaltartu direla jakitea. Euskaltegira joan eta euskara batua ikasi aurretik atxabaltartez plasta - plasta egiten duen gaztea, bere hazurrak hemen itxi gura

dituela esaten duen gizona, eta berak edan ez duen hizkuntza umeari erakusteko ahalegina egin duen etxe koandrea dauzkat buruan.

Integrazioa esaten ei jako. Baina esandako guztiak, integrazioa kosta barik egiten den zerbait dela esaten dit. Tantaka - tantaka, konturatu barik, aparteko ahalegin beharrik barik, atseginez. Aretxagazeta irakurtzea bezala.

**Arantzazu Loidi,  
Arrasate Press-eko  
zuzendaria.**

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur Etxea • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 01 05. • 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txinburreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J.M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.




# Ikusten ez zenean, bota duzu faltan telebista?



**Hermi Miguel  
(Langabetua)**

Ez dut telebista asko ikusten. Behar bada gabetan botaten nuen faltan; baina ez asko, bideoak ere ikusi ditut eta.



**Saioa Ezkibel  
(Ikaslea)**

Bakarrik gabetan bota dut faltan, egunez kalean ibili naiz. Gabetan irratia entzun edo irakurri egin dut, bideorik ez daukagu eta.



**Antonio Vidriales  
(Langilea)**

Ez dut bota faltan, bideo jokoarekin jolasten ibili naiz edo bideoak ikusten.



**Luis Mari Cardoso  
(Ikaslea)**

Normalean ez dut telebista ikusten; baina batez ere gabean ondo etorten da. Ez dut faltan bota bideoak ikusi ditudako.

## KARTAK

### Turnoak eta gogoak

Azken egunotako elurtearen inguruan seguru nago bat baino gehiago konforme dagoela Erakunde Publikoek eskainitako zerbitzuarekin. Ba, ni ez, eta hau esatearren idazten dut; zenbat erantzun lelo entzun ditudan, neuk behintzat badakit: bata "el turno empieza a las 3" edo eta "a mi no me digas que acabo a las 2.30, bestea, ez entzunarena egin bere burua, eta abar, eta abar.

Dena dela, oso garbi daukat, erantzunkizuna ez dela lana egin duenarena.

**ARIENTZATIK**

### Venezuelatik

Aretxagazeta lagunok: Egun batzuk dira Aretxagazeta hartu nuela.

Oso osorik irakurri nuen eta pozgarria izan zen benetan zuek idatzitako nere lana menditako gora berakin, "El Leon" tontorrean.

Urruti bizi gera eta gurekin gogoratzeak benetan arnas berria ematen digu aurrera jarraitzeko.

Baina, jakin, urruti bizi arren nere bihotza beti zuen artean bizi da: ATXABALTAN.

Jarraitu aurrera ARETXAGAZETArekin eta bertan erabiltzen dituzuen etxeko eta kanpoko berrieekin.

Mila esker eta egur bero bat, zuen lagun eta betiko atxabaltarra.

**Galdos'tar Pedro  
(Venezuelatik)**

### Martxoak 8, Emakumeen Eguna

Ohitura onak ez galtzearen, aurten ere martxoak 8aren inguruan emakumeen egoerari buruz murgiltzeko aukera izango dugu.

Hona hemen emakume gazte batek egindako bertsoak erreflexio gisa.

#### EMAKUMEAK KANTARI

Egin askapenerantz  
pausuka ekin eta ekin.

Helburu asko, arrazoi asko  
oztopo gehiagorekin.

Bide horretan konbentzituaz  
hainbat eta hainbat ezjakin.

Agian batek berdintasuna  
nola lortzen den galdegin.

Zuen etxetik hasi zaitzete  
orokorra eman dadin.

Egun batean ezin azaldu  
urte osoko iharduna.

Nahiz eta batzun gustoko ez den  
besteen ospakizuna.

Pixkanaka goaz, baina argituz  
New York-en gertakizuna.

Teoriatik praktikalaino  
luzatuz berdintasuna,

beharrezkoa izan dadin  
emakumeon eguna.

**Aretxabaletako  
emakume talde bat.**





## Atxabalta edurretan

Otsailaren bukaeran edurra izan dugu gure artean. Aspaldian herria ez da horren zuri geratu eta jendea nahiko airatuta ibili da.

Eduz gahien disfrutatu dutenak umeak izan dira, elur pelotekin eta plastikoekin zoragarrri pasatu dute. Edur pelotak zirela eta kalean ezin zitekeen lasai ibili, alde guztietatik jausten ziren eta.

Zapatuan zehar inguruko mendiak zuritzen hasi ziren eta gabeen herria bera, momentuko zuritu zen.

Domekan, ohetik jaiki ginenean ez zuen eguraldiak aldatu eta komunikazio arazoak gehitu izan ziren.

Udalean horrelako egoerarako prest daukaten plangintza martxan jarri zen. Herriko biderik inportanteenak garbituaz joan ziren, lan

horiek kalegarbitzaileek egin zituzten. Bideak garbitzeko aurrean pala bat zeukan Land Rover bat erabili zuten. Palarekin bideko edurra kendu eta bazterretan utzia izan ziren.

Martizenerako eguraldia normalduz joan zen eta baita bideen egoera ere. Egun horretarako kotxeak normaltasunez zebiltzan kalean.

Baina oraindik beste zerbait zegoen konponitzeko, telebista hain zuzen ere.

Hainbat egun egin ditugu telebista barik eta kalean komentario bera entzuten zen: noizko konponduko dute?

Teknikoak ezin ei ziren etorri eta eguazternerarte izan gara telebista barik. Jendea telebista barik ezin daitekeela bizi ikusi dugu.

## Plenoko gaiak

Otsailaren 25ean izandako Udal Plenoan 9 puntu aztertu ziren. Horien artean Emakumeak, Gurutze Gorria eta IHESari buruzko mozioak sartu ziren.

Horrela, Emakundek, Euskal Autonomi Elkarteko herrietan aurkeztua eta onartua izan den mozioak, bi puntu ditu:

- Udalbatzarrak Yugoslavia zenean, gerra taktikaz egiten dabilzan emakumeen bortxaketak gaitzetsi dadila eskatzen du. Eta Ginebrako Ituneko 27. atala, bortxaketak eragiten dituztenak gerra kriminalizat hartzen dituenak, zorrozki betetzea. Gainera, hitzarmen hori lan erakundetara bidaltzea: Nazio Batuetara, Kanpo Arazoetarako Ministerioa, Yugoslaviako Enbaxadara eta

Emakundera.

- Emakume horiei psikologikoki eta ginekologikoki laguntza emateko Udalak parte hartzea. Ekintza zehatzak gauzatu daitezten, Emakundek egingo duen diru bilketan laguntzea.

Bestalde, Gurutze Gorriak aurkeztutako mozioan, gizakien arteko berdintasuna aldarrikatzen da. Aldi berean, pertsona eta erakundeak sentsibilizatu daitezten jokaera desberdintzaileen artean.

Azkenik, IHESaren aurkako komiteak aurkeztutako mozioak, IHESA duten pertsonen eskubideen aldeko adierazpen unibertsala onartu dadila eskatzen zen. Horren helburua, jendea sentsibilizatzea da, IHESA dutenek jasoten dituzten diskriminazioa eta zapalketa egoeraren aurrean.

## Egonaldiak familia euskaldunetan

Euskalduntze prozesuan murgilduta dauden euskaraz bizitzeko euskal giro egokia aurki dezaten helburuaz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak "Egonaldiak familia euskaldunetan" programa martxan jarri du.

Ikasleak hartzeko prest dauden familiek beren eskaria mar-

txoaren 31a baino lehen egin beharko dituzten baldintzak bi dira:

bata, hiru kide baino gehiago duten familiak izatea; eta bestea, familiakide guztiak euskaraz jakitea.

Dena dela, informazio gehiago Udaleko Euskara Zerbitzuan edo 79 10 00 telefonora deituz lor dezakezue.





## Osasun zentruan aldaketak

Osasun Zentruan aldaketak emango dira. Otsailaren 23tik langile barri bat, Mario López de Letona, gutxitu fisiko gasteiztarra hasi da bertan lanean.

Mario orain dela 2 urte Osakidetzan izan ziren oposaketetara aurkeztu zen. Gutxituek oposaketa horietan atal berezi bat zuten eta azkenerako utzi zituzten.

Hori dela eta, Mario k hau esan zigun: " Ez nago ados jarraitu duten prozesuarekin eta errekurtsioa jarri dut, oposaketa horietan gutxituok erabili duten metodoarekin. Oraindik ez dut erantzunik jaso."

lazko abendurarte ez dute frogen berri izan. 3 herri zituen aukeratzeko: Amurrio, Leza eta Atxabalta. Atxabalta aukeratu zuen, gertuago zegoelako.

Egunero Gasteiztik taxisean etorten da Gasteizko Udalak gutxituei ematen dien taxi - bonoari esker. Bere ezaugarriei moldatuko den kotxe baten bila dabil.

Osasun Zentruan aldaketak egin beharko dituzte telefonista lanetan hasi dadin, bertako egiturak ez diolako lanik egiteko erraztasunik eskeintzen.

## Landareei buruzko ihardunaldiak

Eroskik eta Udalak antolatuta, landareei, ortuei eta lorategiei buruzko ihardunaldiak izango dira Kultur Etxeko bideo gela. Hitzaldiak martxoaren 23, 24 eta 25ean arratsaldeko ordu 2etan izango dira.

Egitaraua honako hau da:

-Martxoak 23: Barruko landareak I.

Barruko landareen jatorria, definizioa, talde desberdinak.

Barruko landareen erabilera arruntena etxetan.

-Martxoak 24: Barruko landareak II.

Landareak zela zaindu, honako puntu hauen inguruan: argia, ura, tenperatura, hezetasuna eta ongariak.

-Martxoak 25: Ortua, lorategiak eta ingurugiroa.

Gune berdeen mantenua eta erabilera egokia, gure ingurunean.


Produktu kimikoen, pestiziden, ongarrrien erabilera egokia.

• Beinke elkarteko haurren taldeak datorren astean "Leku ezkutua-ren jolasa" ri hasiera emango dio. Leku berezi bat aurkitu beharko dute O.H. Oko neska mutikoei. Hila-betea zehar pista eta galdera desberdinak osatu beharko dituzte. Berri gehiago eskoletan animatu zaitezte.

• Joan den 27an Muru Alde Elkartean, Elkar-te desberdinen arteko txapelketa izan zen. Hauek izan ziren txapelkunak: Hiba - Gaikeko J. Aldai eta C.M. Olmedo eta 2. postuan, Uratz - Aldeko S. Pagalday eta J. Sanchez. Zorionak.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



MIREN & ZURINE  
BITXIEN DISEINUA

Otalora kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57  
ARETXABALETA





## Fatxadak barrizteko dirulaguntzak

Herriko Kale nagusian hainbat aldaketa ematen dabiltzala konturatu gara. Poliki-poliki Durana Kaleko fatxadak dotore barriztuak ikusten ditugu. Horretarako hainbat diru laguntza daude Foru Aldunditik.

Horrela, 1993ko otsailaren 16an izandako Gobernu Batzordean honako infomazio hau zabaldu zen:

- Foru Aldundiko Hirigintza eta arkitektura sailak, Gipuzkoan, interregarri diren fatxada, plaka eta hiriguneak ba-

rrizteko eta hobetzeko, Deba Garaiko Udalen artean 65 milioi banatuko ditu. Atxabaltari 10 milioi eta 800 mila pezeta dagokio.

- Nekazaritza eta Inguru Naturaleko Foru diputatuek, Foru aginduen bidez, Atxabaltako Udalarari 360 mila pezetako diru laguntza eman dio.

Diru hau zenbait bazarritako fatxadak pintatzeko izango da.

Baserri bakoitzari zuzenduko zaion diru laguntza 40 mila pezetakoa izango da.

## Kale garbiketan aldaketak

Atxabaltako Udalak kale garbiketa zerbitzua- ren kontratazioarako tekniko, ekonomiko eta administrazio plegua onartu zuen.

Kontratazio horrekin honako hau lortu gura da. Kaleko garbiketa modu egokian egitea eta baita berean, zapatu, domeka eta jaietako garbiketa bereziak ziurtatzea ere.

Kontratua onartzeko kriterio hauek finkatu

dira:

- Lehian parte hartzen duenak jarritako prezio orokorra.

- Aurkeztutako enpresak, lan hori aurrera eramateko eskaintzeko prest dagoen pertsona, material eta baliabideak zehaztea.

- Enpresa horrek lan horreitan duen esperientzia.

- Atxabaltako biztanlendako lanpostu berriak sortzea.



## Aratz Elkartearen batzarra

Aratz Atzeratuen Aldeko Elkarateak, otsailak 26an egin zuen urteko batzarra. Bertan iazko ekintzak eta egoera ekonomikoa azaldu zi-

ren. Iaz, batzaz beste 600 mila pezetako irabaziak izan zituzten.

Ondoren aurtengo asmoak aurkeztu zituzten.



NOVEDADES

**FELI**

MODAN DAGOEN GUZTIA!

Iparragirre, 4  
TFnoa: 79 21 24  
**ARETXABAETA**

**BENGOA**  
**FERRETERIA**  
*Menaje eta*  
*etxerako*  
*danetik*

Herriko Plazan  
TFnoa: 79 29 12

**SAGASTA**  
**ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak  
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14  
☎ 79 16 10

**SEAT**



**GARAJE**  
**OSKAR**

Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
TFnoa: 79 98 74



Oraingoan Jose Fuensanta Castorekin izan gara. Honek, eskulanak egitea dauka afiziotzat. Eskulanak egitea betidanik gustatu izan zaion arren, eskola batera sartuzen ikastaro bat egitera. Oso gustokoa du eskulanak egitea eta orain baino ordu gehiago sartzeari gustatuko litzaioke.



piezaren arabera izaten da, eskuz ala tornoz egiteak ere bere garrantzia du. Gero laban sartu, egosi, hotziketan denean atara, esmalte-keramikaz dekoratu, berriro laban sartu eta eginda dago.

• **Garestia da?**

• Esmalteak oso garestiak dira, baina oso kantitate txikiak behar direnez gero, denbora askorako daukazu. Buztina ez da hain garestia.

• **Zein da egin duzun gauzarik politena?**

• laz hemengo tailerrean jarroi bat egin nuen eta oso ondo geratu zitzaidan. Denbora asko igaro nuen egiten eta gainera, lortu nuen esmaltea oso ondo geratu zen.

• **Afizio hau galtzeko arriskuan ikusten duzu?**

• Esku keramika bai, arriskuan ikusten dut lantegietan pieza gehiago eta merkeago egiten dituztelako.

• **Ikastaroak egiteko laguntzarik jaso duzu?**

• Lehen bai, Atxalbaltan behintzat; baina aurten Udalak aurrekontua moztu egin du eta laguntza barik garestiago urtetzen du.

# Keramika egiten

• **Noiztik daukazu afizio hau?**

• Beti gustatu izan zaizkit eskulanak eta konturatu nintzen keramika zela niretako onena; horregatik hasi nintzen Gasteizko eskolan ikasten. Han 5 urte pasatu nituen.

• **Afizio hau eza-gutzeko denbora luzea behar da?**

• Uf! Bizitza osoa. Inoiz ez da ikasi beharreko guztia ikasten, aktibitate hau oso kreatiboa da eta.

• **Nor izan da zure maisua?**

• Teorian eskolako irakasleek irakasten dizute, baina maisurik onena norbera da.

• **Zenbat denbora eskaintzen diozu afi-**

**zio honi?**

• Ez diot gura beste denbora ematen, baina egunean 3 edo 4 ordu gustora egingo nituzke lan honetan.

• **Gatxa da?**

• Gatxa ez da, baina teknika oso beharrezkoa da, eta hori denborarekin bakarrik lortzen da. Dena den, eskuz lantzen baduzu 2 hilabetetan hasi zaitzke gauzak egiten.

• **Zenbat keramika mota daude?**

• Esku keramika, eltzegintza, eskaiola moldeak erabiliz egiten dena.

Horrez gain, ohizko keramika kreatiboa (nahiko ezaguna) ere bereiz dezakegu.

• **Zuk keramikari**

**buruzko klaseak ere ematen dituzu, ezta?**

• Bai, baina klase horietara joaten den jendeak denbora gutxi izaten du eta horregatik aurkitu behar dugu denontzat egokia den ordu bat.

• **Zein da sekreturik haundiena keramika egiteko?**

• Pazientzia. Hala ere, normalean umeek samurrago ikasten dute, eta gainera arretarik haundiena ipintzen dutenak dira.

• **Kontatuko diguzu zela den prozesua? Zela lantzen den keramika?**

• Hasteko zein buztin mota (gorria, beltza, zuria...) gura duzun erabaki behar da, hori

R. VELASCO  
E. VAZQUEZ



Egunero ikusten ditugu herri osoan zehar kalegarbitzaileak, euren erratza eskutan dutela kaleak garbiketan. Kale garbitzaileekin izan gara euren bizimodua gehiago ezagutu guran. Franzisko Muñozek 19 urte daroa Atxabaltako kaleak garbiketan eta Luis Cuestak 12 urte. Felis Iglesias eta Rafa Zamora ebentualak dira eta abuztuan hasi ziren.



## Egunero herria garbiketan

• **Zela hasi zineten lan honetan?**

• Beste lanik ez geneukalako hasi ginen kaleak garbitzen.

**Muñoz:** Nik istripu bat izan nuen Beroan eta eskaketan nuena ematen ez zidatelako handik urten egin nuen. Orduan lan honetan sartzeko aukera izan nuen eta hemen nago.

Hasieran 3 gauza egin behar genituen: kaleak garbitu, lorategiak zaindu eta kamioiaz basurak jaso. Orain kaleak garbitzea da batez ere gura lana.

• **Zelakoa da zuen eguneroko lana?**

• Goizean 8etan hasien gara eta ordubatak arte eta 12.30ak arte egiten dugu lan goizean eta arratsaldean 2.30etatik 5.30ak arte eta 4.45ak arte.

Astelehenetan lan gehiago izaten dugu kaleak garbiketan eta gero arrat-

saldez merkatuko plaza garbiketan. Martizenetan, hormetako kartelak kentzen ditugu. Lan estrak ere izaten ditugu jendeak zakarra atarateko egunak errespetatzen ez dituelako eta zakar horiek geuk jaso behar ditugulako.

• **Zein kale da zikinena?**

• Durana Kalea, eskola ingurua eta Mitarte Kalea, hau da, erdiko kaleak. Denak berdin garbiketan dira, baina igertzen da non dagoen zikinkeria gehiago.

Kale horietan, batez ere gozoki dendak daudelako, zikinkeria gehiago dago. Mitarte Kanean berriz, tabernengatik, kristalak eta botakak topatzen ditugu.

• **Jai ostean zuen lana bikoitza izango da, ezta?**

• Bai, jaietan lan egiten dugu, baina hala ere asko igertzen da. Mitarte Kale ingurua lekurik zikinena da

**"Lan estrak izaten ditugu, jendeak zakarra atarateko egunak errespetatzen ez dituelako. Zakar horiek gero geuk jaso behar izaten ditugu"**

jaietan, botelak, txisa eta botakak agertzen direlako.

Adibidez, haratuzteetan kaleak lotsagarri geratu ziren, kristalez beteta. Gainera, pintadak ere izan ziren eta horiek geuk garbitu behar izan genituen eta horiek guretako lan estrak dira.

• **Nahiko zakarrontzi daude herrian?**

• Ez, baina daudenak ere jendeak ez ditu errespetatzen. Zakarrontziak ez dira etxeko basura poltsak botatzeko, nahiz eta batzuk horrela uste.

Beste arazo bat da, mutikoek daukaten afizioa zakarrontziak apurtu, erre eta erre kara botatzeko.

Hala ere, esan behar da zakarrontzi gehiago falta direla, baina baita erabiltzeko kontzientzia ere. Batez ere Durana Kanean botatzen dira faltan.

• **Eta komun publikoak?**

• Bai horiek ere falta dira. Orain astegunetan goizeko 9etatik gabeko 9ak arte Herriko Plazakoak zabalik daude. Asteburuetan eta jaietan ez dira zabalitzen eta tabernetakoak itxita daudenean jendeak kanean egin behar izaten du.

Komun portatilak ekartzeak ez du merezi, ez lirakeelako errespetatuko eta zatituta topatuko genituzkeelako. Orduan guretako lan gehiago izango litzateke.

• **Zein zikinkeria da gehien ikusten dena?**

• Udan, izozkien plastikoen alde guztietan iza-



ten dira eta neguan, papeleko painelak. Askotan garbitu eta gero berriro pasetan garenean kalea paineluz beteta aurkitzen dugu, badirudi landatu egiten dituztela.

• **Lorategiak errespetatzen dira?**

• Ez, bertara paperak eta denetik botaten dituzte. Gainera bertan dauden zuhaitzak eta lorak ere guztiz apurtzen dituzte. Pintxodun zuhaitzak ere jarri izan dira jendeak ez apurtzeko, baina alferrik da.

Apurtzen duten beste gauza bat herrian daukagun iturri handi bakarra da. Iturri hori inork ez du errespetatzen, boteilak botaten dituzte uretara eta ura botaten duen makina ere apurtu izan dute.

• **Zer eskatuko zenioke jendeari?**

• Jendeak asko protestatzen du Udalak ez duelako hau edo bestea egiten, baina eurek ere ez dute Udalak agindutakoa beteten.

Askotan telebistak eta trasteak behar ez diren egunetan ataraten ditu jendeak eta horreik jasoteko egun konkretua dago. Egundorretan atera beharrean beste egun batean ataraten dituzte eta gero geuk jaso behar izaten ditugu.

Hori ez da Udalaren errua, errua egunak errespetatzen ez dituenarena da. Samurra da zakarra botatea eta gero errua kalgarbitzaileei botatea.

Beste horrenbeste,



txakurrak kalera ataraten dituzten pertsoneri, zera esango genieke, txakurrei irakasteko euren eginbeharrak lorategietan egin dezaten eta ez azeretan.

• **Orduan jendeak ez du zuen lanean laguntzen, ezta?**

• Ez, gehingoak ez. % 25a garbia da, baina beste guztia ez. Askotan zakarrontziak erabiltzeko esan eta eurek zergak ordaintzen dituztela erantzuten dute. Zergak herria txukun eukitzeko ordaintzen dira eta ez zikintzeko.

Behin, adibidez, kale bat garbituta gero handik pasatu eta balkoi batetik botatako paper erreak aurkitu genituen. Orduan guk protestatu egin genuen eta erropak isegitzeko pintza bat bota ziguten.

• **Oraingo jendea garbiagoa edo zikinagoa da?**

• Garbitasun kontuan atzeruntz goaz herri honetan. herria gero eta txukunago jartzen dabilta eta

gehiago zaindu beharko genuke, baina ez da horrela.

Jende zikinak garbia denari kalte egiten dio. Zikinak ez dira umeak bakarrik helduak ere bai. Gainera umeek helduengandik ikasten dute.

• **Lana gustora egiten duzue?**

• Ez da lan txarra eta ezta gogorra ere, baina errespetatzen ez zaituztenean min egiten du. Jende askok lana ondo egiten dugula esaten digu eta eskertu egiten digu. Beste askok berriz kejak besterik ez daukate eta lan gehiago egin behar genukeela esaten digute.


• **Zer eskatuko zenioke Udalari?**

• Garbitasunaren aldeko kanpaina egitea, jendea garbitasunaz kontzientziatu dadin. Badaude kalgarbitzaileak, baina baita paperak botaten dituzten eskuak ere. Herria geurea da eta errespetatu egin behar dugu.

## "Garbitasunari buruzko kanpaina egin behar kolitzateke, jendea garbitasunaz kontzientziatu dadin"



Juanjo Perez, udako oporretan Ertamerika aldean izan zen, Nikaraguan eta El Salvadorren. Baina ez zen lehen aldia izan, orain dela 3 urte ere Nikaraguan izan zen. Bertako egoera gertutik hobeto ezagutzeko aukera izan du. Gaur, eguenean 11n, udaletxeko garban hitzaldia emango du diapositibekin, 3. mundu taldekoek antolatuta.



## Juanjo Perez, oporretan El Salvadorren lanean

• **Zenbat denbora egin zenuen Ertamerikan?**

• Oraingoan, lehenengo 3 asteak El Salvadorren brigadekin, hila-bete Nikaraguan, ikusten eta beste 3 aste berriro El Salvadorren. Batean brigadarekin eta bestean neure kontura.

• **Zela joan zinen?**

• Komitearekin joan nintzen eta gero han sakabanatu egin gintuzten. Ni Chalatenango inguruan egon nintzen, Ignacio Yacuriaren herrian.

• **Zer dela eta joan zinen?**

• Bakoitzak bere zaletasunak eta bere pasioak ditu. Ni Amerikak beti erakarri izan nau, bertako prozesu politikoak, historikoak eta abar. Komitearekin lan

egitea aitzakia da bertako jendea eta egoera edo prosezua ezagutzeko.

• **Zeregiten zenuen han?**

• Bertako irakasleei klaseak ematen nizkien. Goizean ordu bi eta arratsaldean beste bi. Bertako familia batekin bizi nintzen.

Ni hara ez naiz joan zerbait ematera, gutxi eman dut, nire adiskidetzatza, esperientzia... Nik gehienbat jaso egin dut eta nire pentsakera aldatu egin da.

• **Han kanpotar asko dago? Eta hementengoak?**

• Bai, lehen jendea Nikaraguara joaten zen. Orain El Salvadorrera. Europakoak eta Ipar Ameriketakoak ikusten dira eta euskaldunak ere. Gainera, euskaldunak

ezagunak gara, hemen-go asko izan dira han eta.

• **Hango jendearekin zelako harremanak izan dituzu?**

• Oso estuak, ahaztezinak. Han jendea oso zabala da eta orain guk galduta ditugun baloreak (soliraditatea, laguntasuna eta abar) bizi-rik daukate.

Bestalde, hango gizartea matxista da. Gizonetzkoek, ni egon nintzen herri nekazal inguruan, gura zituzten beste emakume zeuzkaten.

• **Zelakoa da hango egoera?**

• El Salvador Euskal Herriaren neurrikoa da, eta biztanleen kopuru bikoitza du. Gerraren eraginez, ekologia alde-tik dena hondatuta dago,

basoak batez ere. Bestalde, % 60a langabezia dago eta lana dutenen artean % 10ak bakarrik jasoten du ganorazko soldata. Hilean 10 - 11 mila pezetakoa da hango soldata.

• **Harritu zaituen zerbait?**

• Gu, gerrilako kanpametueta egon gara bizitzen eta gehien inpaktatu nauena zera izan da, zapalkuntza egoeratik urteteko armak erabili behar izatea eta gainera horren jende gaztea izatea.

Hango elizaren jarrerak ere harritu nau. Jesuita euskaldunek lan inportantea egin dute. Euren jarrera erlijioso-gatik konpromezu osoa daukate herri horren arazoekin, behartsuekin eta askapen mugimenduetarekin. Nik, jarrera hori gure herrian ere ikusi gura nuke.

• **Zuk zer uste duzu egin behar dela?**


• Ez dakit, herri horietako egoera ez dugu guk konpondu behar. Egin dezakegu zerbait. Guk badugu aukera dirua batzeko eta nik jendea oporretan zerbait praktikoa egitera animatuko nuke. Hori 3. munduko edozein herrialde-tara joanda egin daiteke.

• **Badaukazu osterara joateko asmorik?**

• Bai, niregatik joango nintzateke. Baina arazo batzuk direla eta, behar bada ezin izango dut aurten joan.



**Asier Guenetxea, 22** urteko txirrindularia, aurten ere Artiach taldean dabil. Asierrek Portugaleko, "La vuelta a Lisboa, a Gran Capital" lasterketan etapa bat irabazi du eta beste batean, 2. geratu da. Erregularitatean ere 2. geratu da. Aurtengo denboraldian zer egingo duen eta ze asmo daukan kontatu digu Asierrek.



## Asier Guenetxea,

### • Zergatik hasi zinen txirrindularitzan?

• Txikia nintzenetik gustatu izan zait. Umeen karreretan parte hartu gura nuen eta Dorletako Ama eskolan apuntatu eta hasi nintzen.

### • Ze bide jarraitu duzu?

• Lehenengo, alebiretan, Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen ibili nintzen. Gero, infantiletan Arrasateko Iker Taldean, kadetetan Donutsen eta jubenetan Fagorren. Gero afizionatuetan 2 urte Kaiku -Gurelesan eta orain 2 urte daroat profesionaletan Artiach taldean.

### • Zeintzuk dira zure ezaugarriak?

• Lauean eta mendian ezin dut jarraitu, sprintean bakarrik ondo. Hasieran ondo gero poliki joaten naiz.

### • Zein prestakuntza jarraitu duzu tenporada hastean?

• Neguan denetik egiten dut, ez dut arineketan egiten belaunetan arazoak ditudalako eta patinetan ibiltzen naiz. Bestela, palan, mendira joan, igeri egin.... Gabonetatik aurrera, bizikletarekin hasi naiz eta sprinta lantzeko pistan eta motorraren atzetik eta abar ibili naiz.

### • Pajara asko harraipatzen dituzu?

• Bai, adibidez iaz "Ruta del Sol" frogan bi etapetan jarraian. Gero, entrenamenduetan ere harraipatzen ditut. Askotan lur jota heltzen naiz etxera.

### • Aurten zein probatan hartu behar duzue parte?

• Oraindik ez dakit. Oraingo Murciakoan eta Euska Herrikoan korrituko

dut. Beharbada, Espaniako bueltan lehenengo hiru etapak, sprintean irabazteko. Ekipoa Girora joaten bada beharbada ni ere joango naiz.

### • Sprinta arriskutsu da?

• Behin ere ibili ez denarendako bai. Sartzea gatxa da. Denetik egiten da, kamisetatik tiratu, atzera bota, eta abar.

### • Zer egiten duzu zuk?

• Denetik, orain lelu luzea utzi dut, ikusten nautenean errespetua ematen duelako.

### • Zela ikusten duzu etorkizuna?


• Ez badut irabazten kalera joango naiz, . Sprinter izateko ondo ikusten dut neure burua. Aurten iaz baino karrera gehiago irabaztea espero dut, edo, hobeto ibiltzea behintzat.

• Squash txapelketako finalerdietara honako hauek heldu ziren: Patxi Zubizarreta, Zabarte, Pello Orobongoa eta Iñaki Uribetxebarria. Finala zapatuan jokatu zen eta lehenengo postua Pello Orobongoak lortu zuen eta 2.a Zabartek. Zorionak.

• Joan den domekan, Zornotzan, Espainiako kros txapelketa izan zen. 16 eskaldunen artean Ramon Jausoro atxabaltarra ere selekzionatua izan zen. Ramon Jausoro 80. postuan heldu zen.

• Xabier Lazpiur ezin daiteke bizikletan ibili. Mallorkan hasi zuen denboraldia, baina ezin izan du jarraitu. Banestorekin 3 urtetako kontratua du eta aurtengo azkena da.





## Aozaratzako Otoratarren kapila ( II )

Sancho López de Otorala ( irakur aurreko Aretxagazeta ) bere jaiotetxera itzuli zenean, bere liburuen artean, liburu interesgarri bat zekarren, argitaratu berria. Liburu hau italiar-antikitzulitako liburua zen, 1552. urtean Toledon argitaratutakoa hain zuzen ere, eta bertan agertzen ziren adorno eta dekoratzeko teknika eta motiboak ( "a candelieri" ), bere familiaren kapilan ( Aozaratzako Otoratarren kapila ).

Kapila, XV. mendearen bukaeran ( XVI. mende haseran ) eraikitakoa da, eta hori, mensulatan ikus daiteke ( boladun mensulak, Errege Katolikoen garaioak ). Sanchok bere arbasoen kapila "jantzi" egin zuen, eta horretarako gangan gaur egun ikus daitezken giltzarriak

"eskegi" zituen. Agertzen diren irudiak, polikromoak dira, oso finak, eta derrigorrez Trentoko Kontzilioaren aurrekoak (1545 - 63 ), zeren eta, Otoratarren harrarria agertzen da, eta Kontzilioak, heraldikaren adierazpenak elizatatik desagertarazi baitzituen.

Giltzarrien norabidea ulertzeko, jakinarazi, 1.a aldaratik urrunena dela eta eskuinera jo dugula erlojuak balitz bezala. 9.a erdikoa da.

1.- San Pablo. Bizarduna. Esku tartean, eskuineko besoak ikusten zaiola, ezpata darama, burua ebaki baitzioten.

2.- Klabe hau lau zatitan banatzen dute bi xirmendurek. Hiru zatitan mahats mordoak ikus daitezke, laugarrena ikuzezina da.

3.- Santiago Erromes. Hau ere bizarduna. Ezke-

rreko eskuan makuluedo bastoia darama, eta eskuinekoan, liburu ireki bat ( Apostolu liburua ). Txapela darama, eta txapelaren aurrealdean txirla bat ikusten zaio (erromesen seinale ).

4.- Emakumea. Buruan txapel antzeko bat du eta ile luzeak nabari zaizkio. Jantzietan, Berpizkunde garaiko emakumea dirudi. Ezkerreko besoan ume txiki bat darama (ondo landu gabeko irudia azken hau) eta eskuineko eskuan daramana lore sorta bat dirudi. Irudi biek aurpegi beltzarana dute.

5.- San Juan Bataiatzailea. Bizarduna. San Juanen irudiarekin lotzen diren seinaleak nabariak dira: ardia eta bandera txiki bat. "Ecce Agnus Dei" ( Hona hemen Jaungoikoaren bildotsa...).

6.- Otoratarren armarria. Aldare nagusian bi aingerutxok eusten dituzten bezalakoa.

7.- Gizonezkoa. Bekoki zabala. Bizarduna. Eskuineko eskuan giltza darama, beraz San Pedro dela, argi eta garbi esan dezakegu, ezkerreko eskuan liburua ( Apostolu liburua ).

8.- Emakumezko pertsonaia. Garaiko arropak. Oso fina eta ederra. Ile luzea. Eskuetan kopa antzeko bat darama, eskeintza bat agian. Maria Magdalena.

9.- Gizonezkoa. Bizarduna. Jaungoiko Aita Guztiz Ahaltsua denez, ezkerreko eskuan Ludia darama. Eskuineko eskuaz bedeinkatzen ari da bi atzamar tolesturik eta beste hirurak luzaturik dituela.

**A. Antxia Leturia**  
eta **I. Urreta**



# Edurra eta artistak



J.J. Aretxaga


Idazle honendako pozgarria eta penagarrria izan da aurtengo edurtea. Pozgarria, aspaldiko partez kalea zuritu zuelako. Penagarrria, herriko jendeak bideoekin emandako espektakuloagatik. Telebista barik egun batzuk pasatzeko aukera paregabea eman zigun edurrak. Hala ere, jendeak benetako dependentzia erakutsi zuen. Domekan bideo-denda zabaldu zen. Izen propiorik ez dut emango, gehiegi direlako, ez merezi ez dutelako. Portzierto, liburutegian ez ei zen jende gehiago izan egun horietan.

Denok telebistara begira egon ezkerro, herriko artistek jai daukate. Baina ez pentsa herrian artistarik ez dagoenik. **Dabid Errasti** 27 urteko herritarra Fregoli antzerki taldean dabil, eta aste honetan estrenatu dute "Bremengo musikariak" izeneko antzezlan berria. Bertan txakurraren papera egingo du Dabidek.

Artistak direnak, kartelak kentzen artistak, udaletxeko langileak dira. Ale honetan aipatzen da **Juanjo Perezek** dispositiba emanaldia eta hitzaldia emango duela El Salvadorri buruz, eguenean. Hori iragartzeko kartel kapritxoso batzuk egiten orduak pasatu dituzte Hirugarren Mundu Taldekoek. 20 kopia atera eta herrian jarri zituzten astelehen ilunkaran. Martizen goizean joan eta denak kenduta zeudela kontatu didate. Offiservisera joan eta kartel berriak atera behar. Moskeo itzela daukate taldekoek. Kartelen garbiketa zorrotza mania sasieuropeoa iruditzen zait niri. Eta pasatu bakoak kentzea, pasadatxo bat.

Egunik hotzenak pasatutxoak izango dira, eta zikloturistak udaberriarekin hasiko dira urtetan. Domekan Gatzagan izan ziren **Dorletako Amari** lorak eskeintzen eta bide batez denporaldirako suerte ona eskaketan. Dorletara laster joango dena, suerte ona eskaketan, baina serioago, **Juan Ignacio Gabilondo** izango da. Pentzetan dut imaginatzen duzuela zertara joan litekeen datorren zapatuan gizon bat Dorletara.

KOMIKIA





## 13

### ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman : **Mujer blanca soltera busca...** filmea.

## 14

### DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Aratz.**

- Zaraia mendi Taldearen urteera: **Berain.**

- Zaraia zineman arratsaldeko 4.30etan **Cristobal Colon** filmea


eta 7retan **Mujer Blanca soltera busca...**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Landa - Narbaxa - Aretxabaleta.** (62 km).

## 19

### EGUAKOTXA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Leixargaraten** akanpada.



- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Gazte-txoen** akanpada.

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan **Horizonte muy lejano** filmea Zaraia zineman.

- Uratz Alde Elkarteko zaindaria: **San Jose.**

## 20

### ZAPATUA

- Gaueko 10etan **El último Mohicano** filmea Zaraia zineman.


## 21

### DOMEKA

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Eskoriatza - Oñati - Udaña - Astiria** (68 km).

- Futbol partidua: **U.D.A - C.D. Zarautz.**

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan **El último Mohicano** filmea Zaraia zineman.



## ARETXAZOKA

### Lana

- Neska bat gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 85 64 (Maika).

- O.H.O ko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 68 18.

### Lana

- Amerikar bat ingeleseko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tfnoa: 79 20 64.

- Larunbat goizetan ingeleseko klaseak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 01 17.

### Salerosketak

- Garaje bat alokatzen da Iparragirre Kalean. Tfnoa: 79 05 28.

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

- Pisu bat erosi gura nuke Atxabaltan. Tfnoa: 79 17 04.

**Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**



**DON BIDEO  
BIDEO DENDA**

Loramendi, 10  
Tfnoa: 79 81 78

**ZARAIA TABERNA**  
GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA  
ANAIAK

**BASABE  
JATETXEA**

Menu eta afariak  
industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoa: 77 07 94  
79 91 84

**ITURGINTZA**



Tfnoak: 79 07 34  
79 31 87

**ARLUTZ**  
TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



**HAIZEA  
AKEITEGIA**

Mitarte Kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57

**EXPRESS  
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

**Zatoz ezagutzera  
ZUHAITZ  
jatetxea!**



**MATIKUA  
TABERNA**

Azata auzoan  
☎ 79 16 68  
**ARETXABALETA**

**JAUREGI  
OKINDEGIA  
(Panaderia)**

Otalora, 10  
Tfnoa: 79 57 47

**ANDONI ALTUBE**

**ELEKTRA  
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36  
Tfnoa: 79 10 60  
**ARETXABALETA**


**I O S U  
URDAITEGIA**

**MITARTE, 1 eta  
GORBEA, 8**

**BENGOA  
Mertzeria**

Durana, 13  
☎ 79 21 00  
**ARETXABALETA**

**Optica**



Loramendi, 10  
☎ 79 98 21

**IBARRA ESTANKOA**

**Tabakoa eta  
ikas materiala**

Bizkaia, 3  
Tfnoa: 79 23 77

**"HERRASTI"  
AKEITA ETXEA**

Aralar Kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83

**NERIAN**

Loradenda

Otalora, 14 behe  
Tfnoa: 79 70 66



# KURTZEBARRI

## ATXABALTAKO ESKOLA



### Kurtzebarri Eskolak eskeintzen dizkizu:

- Etengabeko prestakuntzan murgildutako irakasleagoa; baita Hezkuntz proiektuari atxekita Erreformaren berrikuntzak aurrera eramateko gai dena.
- B eredia MURGILTZE planean, euskerari tratamendu berezi bat emanez.
- D eredia O.H.O. osoan.
- Ingelesa 3. mailatik aurrera.
- Behar berezidun ikasleentzat laguntza.
- Ekintza kulturalak:
  - Irteerak, ikustaldiak, txangoak....
  - Euskeraren kanpainak.
  - Baserria.
  - Jai herrikoien ekintzak.
  - Antzerki topaketak.

### Beste eskeintza batzuk:

- Auzoetarako garraioa.
- Jantoki zerbitzua.
- Guraso Elkartearen eskutik:
  - Kirolak.
  - Bertso eskola.
  - Marrazki ikastaroa.
  - Gimnasia erritmikoa.
  - Ekintza kultural desberdinak.

### Matrikula epea

Martxoak 8 tik 30 era  
Arratsaldeko 6 rak arte

Edozein informazio nahi izanez gero Eskolan bertan izango gaituzue. Tfnoa: 79 00 49